

Zer egin paper gutiagoren xahutzeko ?


Informazio bilketa

Hiztegia

edukiontzi
inguraki
birziklapen
zelulosa
papergintza

Oharra

Paper birtziklatu tona batek 17 zuhaitz eta 20.000 L ur salbatzen ditu.



Abiapuntua


Zer egin dezakegu munduan oihan gutiago desagertu dadin ?

Jarduera


Haurrak utziko dira gogoeten eta ikerketen egiten. Aterabideak proposatuko dituzte, idatziko eta gelan lagunei azalduko. Eztabaida ere antola daiteke.

Besterik

Haurrek emanen dituzten aterabideetan agertuko da paperaren birtziklapena. Ikus ondoko orrialdeetan argitasun batzuk horri buruz.



Papera ez da nolanaahi botatzen...



Egunkariak eta aldizkariak edukiontzi batean...



Etxeko zakarrontzian



paper zikinak



plastikozko estalkiak




Higiene produktuak



xatarrak

Etxeko eta etxe kanpoko ingurakiei eta seinaletikari behatuz...

Kartoiak, janari adreiluak



beste batean.




Dudarik baduzu ?
Etxeko zakarrontzian
emazu.



Papera birziklatzen da. Galde-erantzunak

Gehiago jakin



Zer lehengai baliatzen da paperaren egiteko ?

Paperaren egiteko ardurenean zelulosa baliatzen da.

Non aurki daiteke zelulosa ?

Zelulosa gehienik landareek eta zuhaitzek dute hornitzen.

Anitz zuhaitz baliatzen dea papergintzan ?

Munduan aurtikitzen den lau zuhaitzetarik bat paper industriaren-tzat baliatzen da. Erran behar da halere gaur egun Frantziako paper-industriak bere paper ekoizpenaren %49 paper zaharretik egiten duela.

Anitz paper xahutzen duguia ?

Frantziako paper kontsumoa 10 aldiz biderkatu da 1950etik hona. Egundak bategari bakoitzak hilabeteetan 70 kg paper erabiltzen du.

Nondik dator paperaren lehengaia ?

Birziklatua ez den paperaren laurdena Kanadako oihanetatik zuhaitz zaharretatik dator.

Zergatik paper birziklatua erabil ?

Paper birziklatua erabiliz, bulegari batek urtero 12 zuhaitz eta 15.000 l ur gupidesten ditu. Birziklapena sustatuz, oihan gehiago babestuko dugu.

Paper birziklatua kario dea ?

Ez, paper birziklatua ez da paper klasikoa baino karioago.

Paper birziklatuak inprimagailuei kalte egiten die ?

Lehen, arazoak gertatzen ziren baina orain birziklatzeko teknikak

anitz hobetu dira eta ez da gehiago trabarik paper birziklatuaren erabiltzeko.

Paper birziklapena garatzen ahal dea oraino ?

Bai, birziklapenak emaitza hobeak emanen lituzke papera baldintza onetan biltzen balitz.

Egia dea birziklapen prozesuak lan postuak sorrarazten dituela ?

Bai, bulegoetako 2 tona paper zaharren biltzeko, sailkatzeko eta birziklatzeko, 2 lan postu behar dira.

300 bulegari diren hiri batean adibidez, denbora osoko lan postu bat sor daiteke.

Bulegoetan erabiltzen den papera birziklatua dea guti edo aski ?

Zorigaitzez ez aski. Gaur egun bulegoetan erabiltzen den paperaren %15 baizik ez da birziklatua. Jendeak indar bat egin behar du oraino.

<http://www.greenpeace.fr>



Papera nola egin	Helburua :	Gaiari doakion jakintasuna :	Hizkuntzari doakion jakintasuna :
------------------	------------	------------------------------	-----------------------------------

Papera nola egin ikasgelan : argibideak



- Egunkari-papera eskuz puska eta ur epelean trenpan utz. Irabiagailuaz oreka ongi nahas.
- Zali batez oreka bahe barnean barreia geruza mehe bat eman.
- Mokanes edo oihal bat ezar orearen gainean, zabal zabala.
- Bahe azpian agertzen den ura belakiaz ken. Gainean ere belakia iragan.
- Emeki-emeki oihala bi eskuz altxa. Papera loturik heldu da.
- Idortzera utz. Eztiki eta artoski orria deslotu beharko da. Nahi den forma eman mozten da. Eta gainean idatz daiteke !

Izena :	Ikas neurria			Norekin egina			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	